

SARRERA

1. Rosvitari buruzko zenbait datu biografiko eta historiko

Sodalitas litteraria Rhenanako humanista alemanek «hamaikagarren musa» gisa laudatu zuten Rosvita, haren lanen *editio princepsean* argitaratutako epigrama batean (Celtis, 1501: aiii^v)¹; XVI. menderako, Rosvita ezaguna zen Alemaniako mugez gaindi², eta, nahiz eta XII-XVIII. mende bitartean ahaztuxeago egon, XIX. mendetik aurrera akademikoen eta irakurleen arreta berreskuratu zuen³. Rosvita da ezagutzen dugun lehen teatrogile kristaua, bai eta Erdi Aroan emakumearen irudi literarioa aldatzen saiatu zen lehen poeta ere, besteak beste. Bere identitate femeninoaren kontzientzia publikoki adierazi eta kontzientzia hori bere idazlanetan islatu zuen lehen emakumetzat ere hartua izan da, eta, arrazoi bategatik edo bestegatik, Europako literaturako idazlerik erakargarrienetakotzat dauka zenbait adituk⁴.

Datu gutxi dauzkagu, hala ere, Rosvitari buruz: Rosvitak berak bere testuetan —atarikoetan bereziki— tarteka ematen digun informazio apurra besterik ez. Hala, badakigu Gandersheimeko beneditar abadian —gaur egungo Bad Gandersheim udalerrian, Saxonia Beherean— bizi izan zela, baina, hori alde batera utzita, hutsune

1. Conrad Celtisek argitaratutako *editio princepsean* (Nuremberg, 1501), *Sodalitas litteraria Rhenanako* kideek idatzitako hainbat epigrama daude, Rosvitaren idazlanen atariko gisa; besteak beste, Willibald Pirkheimerrek grezieraz idatzitako epigrama bat eta haren latinezko itzulpena. Honela dio latinezko itzulpen horrek: «Si Sapho decima est musarum dulce canentum / Hrosuitha scribenda est undecima aonidum» ('Safu hamargarrena bada gozo abesten duten musen artean, Rosvitaren izena hamaikagarrena idatzi behar da Aoniakoen artean'; Aonian —Beozian— kokatutako Helikon mendian bizi ziren musak).

2. Espainian argitaratutako liburuen artean, adibidez, Johannis Vasaeus Brugensis delakoaren *Chronicon Rerum Memorabilium* lanean (Salamanca, 1552) aipatzen da Rosvita lehen aldiz (Martos & Moreno Soldevilla, 2006: 405-407).

3. Rosvitaren obrak izandako fortuna literarioaren gainean, Goulletek (1999: XXXVII-XLIX) eta Bisantik (2005: 187-98) ematen dituzte, esaterako, datu gehiago.

4. Rosvitak Erdi Aroko Europako literaturan daukan lekuari buruz, ik., besteak beste, Wilson (1984: 30), Rivera Garretas (1990: 81) edota Bisanti (2005: 10-11). Argitu nahi dut, bide batez, lan horietatik eta Bibliografia atalean jasota dauden itzulpenetako hitzaurre eta oharretatik atera ditudala liburu honetan aipatzen ditudan hainbat datu, eta ez nire ikerketa zuzenetik. Rosvitaren lanaren balioespenari dagokionez, aipagarria da XIX. eta XX. mendeko zenbait adituk auzitan jarri zuela Rosvitaren obraren egiazkotasuna, Celtisek faltsututako lana izan zitekeelakoan (Bisanti, 2005: 7). Erdi Aroan Europan idatzi zuten emakumei buruz, ezinbestekoak dira Dronke (1984) eta Bertini *et al.* (1989). Waynek (2011) Europan nahiz Europatik kanpo K.a. III. milurtekoetik gorde ditugun idazki «feministen» lekukotasun ugari jasotzen ditu; alegia, sexu-diskriminazioaren nolabaiteko kontzientzia, eta diskriminazio horren kontrako nolabaiteko erresistentzia, erakusten duten hainbat lekukotasun.

asko dago Rosvitaren inguruan. Haren izenak berak ere sortu izan du zalantza, Rosvitak bere ponte-izen germaniarra latinera egokitu baitzuen bere lanetan: nominatiboan, *Hrotsvit* ageri zaigu; genitiboan eta akusatiboan, berriz, *Hrotsuithē* (edo *Hrotsuithē*) eta *Hrotsuitham* —alegia, lehenengo deklinabideko atzizkiekin eta *t*-aren osteko hasperenarekin—⁵. Beste pasarte batean, ostera, *Clamor Validus Gandeshemensis* bezala aurkezten du bere burua; hau da, ‘Gandersheimeko Aldarri Indartsu’ gisa (*Praef. lib. II*, 3). Grimmez (1838: IX) geroztik, aho batez hartu izan da esapide hori Gandersheimeko elizemakumearen ponte-izenaren hitzez hitzeko itzulpenzat, Rosvitak bere izenaren esanahia bere bizitzaren egiteko nagusiarekin —kristau-fedea zabaltzea— lotu nahi izan balu bezala⁶; horrenbestez, litekeena da Saxoniako hizkuntza zaharrean *Hrothsuith* izatea haren izena (aleman garai zaharrez, *Hruodsuind*)⁷. Bibliografia modernoan, hainbat modutan izendatu dute Rosvita, eta, hala, *Hrotsvit*, *Hrosvita*, *Hrotsvita*, *Hrotsvitha*, *Hroswitha*, *Rosvita* edota *Roswitha* formak ageri dira, adibidez, hari buruzko lanetan⁸. Egoera korapilatsu horren aurrean,

5. Pasarte hauetan dago izena nominatiboan: *Epist. lib. II*, 1; *Praef. lib. III.1*, 1. Hauetan genitiboan: *Maria*, 18; *Ascensio*, 148; *Gongolfus*, 12. Eta honetan akusatiboan: *Pelagius*, 3. Rosvitaren lanen pasarteak aipatzen ditudan bakoitzean, Berschinen (2001) edizioa hartuko dut erreferentziatzat, baina, espazio-kontuengatik, gehienetan ez dut latinezko testua emango. Bestalde, ohikoa denez, izenburu laburtuaren bidez egingo ditut Rosvitaren lanen aipamenak (aurrerago emango dut lan guztien izenburu osoaren berri). Rosvitaren lanen atariko testuak aipatzeko, berriz, laburdura hauek erabiliko ditut: *Praef. lib. I* = Lehen liburuaren hitzaurrea (alegia, legenden atarikoak); *Praef. lib. II* = Bigarren liburuaren hitzaurrea (alegia, teatro-lanen atarikoak); *Epist. lib. II* = Bigarren liburuko gutuna zenbait babesle jakintsuri; *Praef. lib. III.1* = Hirugarren liburuaren lehen partearen hitzaurrea (alegia, *Gesta* delakoaren atarikoak).

6. Antzeko esapideen bidez, deiarar edo oihu egiten duten kristauen berri ematen digu Bibliak zenbait pasartetan; besteak beste, bi hauetan: «Kristok, mundu honetan bizi zelarik, deiarar handiz eta negar-malkoz egin zion otoitz eta erreger heriotzatik libra zezakeen Jainkoari eta, esaneko izan zitziolako, Jainkoak aditu egin zion» (*Heb* 5.7); «Joanek, Isaias profetaren hitzak aipatuz, esan zuen: —Ni, “*Prestatu bidea Jaunari*” basamortuan oihuka ari denaren ahotsa naiz» (*Jn* 1.23). Biblija.net ataritik kopiatu dut Bibliaren euskarazko testua, hain zuzen Dionisio Amundarainek koordinaturiko Elizen Arteko Biblia Elkarte lantaldeak euskaratua, eta bertatik hartu ditut lan honetan aipatuko ditudan Bibliako gainerako pasarteak eta erabiliko ditudan laburdurak ere.

7. *Hruot* ‘aldarri’ litzateke, eta *sui(n)d*, ‘indartsu’ (Zeydel, 1946: 281-282; Goulet, 1999: X-XI).

8. Gutxienez, izenaren hogeita bi aldaera foniko eta grafiko daude jasota (Goulet, 1999: X). Besteak beste, *Hrotsvit* (Nagel, 1965) edota *Roswitha* (Kronenberg, 1962; Cardelle de Hartmann, 2003) aurkituko ditugu alemanez idatzitako lanetan; ingelesezkoetan, *Hrotsvit* (Wilson, 1989; Brown & McMillin & Wilson, 2004; Brown & Wailes, 2013a), *Hrotsvitha* (Dronke, 1984) edota *Hroswitha* (Frankforter, 1979); frantsesezkoetan, *Hrotsvitha* (Magnin, 1845) edota —batez ere— *Hrotsvita* (Goulet, 1999); italierazkoetan, nagusiki *Rosvita* (Bertini, 1986 eta 1989; Giovini, 2003) baina baita *Hroswitha* (Sticca, 1979) ere; eta, gaztelaniazkoetan, *Rosvita* (Pociña López, 2003; Martos & Moreno Soldevilla, 2005), *Roswitha* (Parra Membrives, 2001), *Hroswitha* (Fontán & Moure Casas, 1987) edota *Hrotsvitha* (Aste, 1990; Rivera Garretas, 1990). *U > v* aldaketa ohikoa da; Antzinetatik, latinez idatzitako testuetan, *u* hizkiaren bidez adierazi ziren bai /u/ bokala bai /w/ semikontsonantea, harik eta XVI. mendean Pierre de la Ramée izeneko humanistak (ca. 1515-1572) —Petrus Bonus ere deituak— latinezko testuetan bi soinu horiek bi letra desberdinez (*u* eta *v*) bereiztea proposatu zuen arte. Era berean, /i/ eta /j/ ere *i* grafiaren bidez adierazten ziren, bi soinu horiek *j* eta *i* hizkien bidez bereizi ziren arte.

kosta egin zait erabakitzea nola eman euskaraz haren izena, baina *Rosvitaren* alde egin dut azkenean; izan ere, bestelako aukerak ere zilegi izanik (*Hrotsvit*, *Hrotsvita* edota *Hrotsvitha*, esaterako), nahiago izan dut hautatu euskarazko hitz arrunten grafiatik hurbilago dagoen forma bat⁹.

Badirudi Rosvita 935. urte inguruan jaio zela eta X. mendea amaitu aurretik hil. Haren jaiotza-dataz, bi datu baino ez dauzkagu: batetik, Saxoniako Oton dukea († 912) —Germaniako Erromatar Inperio Santuko Oton I.a enperadorearen aitona— hil baino aski geroago jaio zela (*Primordia*, 525); bestetik, bere irakasle Gerberga (ca. 937-1001) baino nagusiagoa zela, Rosvitak berak pasarte honetan esaten digunez:

Unde clam cunctis et quasi furtim · nunc in componendis sola desudando nunc male composita destruendo satagebam · iuxta meum posse licet minime necessarium aliquem tamen conficere textum ex sententiis scripturarum · quas intra aream nostri Gandeshemensis collegeram cęnobii · Primo sapientissime atque benignissime Rikardis magistrę aliarumque suae vicis instruente magisterio · deinde prona favente dementia · regię indolis Gerberge cuius nunc subdor dominio abbatisse · quę aetate minor · sed ut imperialem decebat neptem · scientia provector aliquot auctores quos ipsa prior a sapientissimis didicit me admodum pie eruditiv · (*Praef. lib. I*, 6-7)

‘Hori dela eta, guztien ezkutuan eta ia isil-gordeka, bakarka idazten ahaleginduz batzuetan, txarto idatzitakoa suntsituz besteetan, saiatzen nintzen, ahal nuen heinean eta batere beharrezkoa izan ez arren, testuren bat idazten Gandersheimeko abadiaren barruan bildutako izkribuetako sententzietatik abiatuta: lehenbizi, Rikardis maistra txit jakintsu eta onberaren edota bera bezalako beste batzuen irakaspenen bidez; ondoren, erregearen leinukoa den Gerbergaren bihozberatasun adeitsuak lagunduta, zeinaren agintepean —gure abadesa baita— nagoen orain. Hura ni baino gazteagoa da adinez baina, enperadorearen ilobari dagokion bezala, aurreratuagoa jakintzan, eta aurretik jakintsuenengandik ikasi zituen zenbait autore erakutsi zizkidan, debozio handiz’.

Rosvitak aipatzen duen Gerberga hori, Oton I.aren iloba ere bazena, Gandersheimeko abadesa izan zen 959-1001 urteak bitartean —Rosvitak aipatutakoari Gerberga II.a esaten zaio, haren aurretik Gerberga izeneko beste abadesa bat (Gerberga I.a) egon baitzen—. Rosvitaren arabera, bera baino gazteagoa zen Gerberga II.a, baina, Rosvitaren irakasle izanik, litekeena da askoz gazteagoa ez izatea¹⁰.

9. Euskaltzaindiaren 180. arauan (10. or.) berariaz esaten da *svinths/swind* germaniar elementua duten izenak *-vinto* eta *-vinta* idatziko direla euskaraz (adibidez, *Gosvinta*). Euskaltzaindiaren 186. arauan (2. or.), berriz, nahiz eta gomendatzen den «Europako errege-erregina historikoen izenak, oro har, euskal grafiara egokituta» idazteko, onartzen da, hala ere, joera nagusia dela «Europako iparraldeko erresumetakoak, ezezagunagoak-edo baitzaizkigu, ez egokitzea». Alabaina, izenaren amaierarako *-vita* forma egokituaren alde egin dudanez 180. arauari jarraikiz, koherentea iruditu zait hasierarako ere *Ros*-forma egokituaren alde egitea. Latinaren bidez jaso ditugun izen berezien euskal ordainen gainean, interesgarri derizot Ruiz Arzalluzek (1994) egindako zenbait gogoetari.

10. Beste testu batean ere (*Praef. lib. III.1*, 1), *hera* ('maistra') deitzen dio Rosvitak Gerberga II.ari. Rosvitak berak beste maistra batzuegandik ikasi izanak erakutsiko luke, bestalde, Rosvita ez zela inondik inora *rara avis* bat izan garai hartako Saxonian (Wemple, 1987; Bertini, 1989; Pillolla, 2003: XXI-XXII).

Jaiotzaren gainean bezalatsu, Rosvitaren heriotzari buruz ere ez daukagu datu askorik. *Gesta Ottonis* izeneko obraren lehen hitzaurrean, Gandersheimeko elizemakumeak Gerberga II.aren esku eta Mainzeko artzapezpiku Gilenen esku uzten du *Gesta Ottonis* lana balioestea (*Praef. lib. III.1*, 11); Mainzeko Gilen —Oton I.aren semea eta, hortaz, Gerberga II.aren lehengusua— 968. urtean hil zen, eta, beraz, pentsatu beharra dago hura zendu baino lehen amaitu zuela Rosvitak *Gesta Ottonis* delakoa. Lan horretan bertan, Oton I.ari eta II.ari zuzendutako beste bi hitzaurre txertatu zituen Rosvitak; bi Oton horiek koenperadore izan ziren 967tik aurrera, harik eta 973. urtean Oton I.a hil zen arte, eta, hori dela eta, pentsatzekoa da Rosvitak 967 eta 968 urteak bitartean bukatu zuela *Gesta Ottonis* idazten. Bestalde, *Primordia coenobii Gandeshemensis* izeneko lanean ere —Rosvitaren azkena—, Rosvitak Oton I.a aipatzen du (*Primordia*, 69, 564); hala ere, aipamen horiek ez dute laguntzen Rosvitaren heriotza-data erabat zehazten, eta, horrenbestez, Rosvitaren heriotzari buruz esan dezakegun bakarra da litekeena dela X. mendearen amaieran gertatu izana —ziur asko, azken laurdenean—¹¹.

Rosvita Gandersheimera noiz eta nondik heldu zen ere ez dakigu zehazki. Saxoniako Liudolfo dukeak eta haren emazte Odak sortu zuten beneditar abadia, IX. mendearen erdialdean, eta familia nobleetan jaiotako elizemakumeak bizi izan ziren bertan hasiera-hasieratik; Liudolfo dukearen beraren hiru alaba (Hatumoda, gorago aipatutako Gerberga I.a eta Kristina), esaterako, Gandersheimeko abadesa izan ziren. 947tik aurrera, Oton I.ak —Liudolfo eta Odaren birbilobak— zenbait pribilegio aitortu zizkion abadiari¹², eta, X. eta XI. mendeetan zehar ere, Gandersheimek otondar dinastiarekin lotura estua izaten jarraitu zuen; esan dugun bezala, Oton I.aren iloba Gerberga II.a izan zen bertako abadesa, 959-1001. urteetan, eta, hura hil ostean, Oton II.aren eta Teofano enperatrizaren bi alabak ere bete zuten kargu hori: lehenik Sofiak, 1002tik 1011ra, eta ondoren, 1039tik aurrera, Adelaidak —azken hori, gainera, Gandersheimen bertan jaioa zen, haren ama Teofano sarritan joaten baitzen bertara—. Abadian bizi ziren emakume gehienak aristokraziakoak zirela kontuan hartuta, pentsatzekoa da Rosvita ere Saxonia Behereko goi-mailako familia batean jaio zela eta umetan sartu zela Gandersheimen¹³; ez dago argi, ordea, nolako

11. Rosvitaren heriotza-data zehazteko, proposamen gehiago egin dira, baina horietako bat ere ezin da ziurtasunez egiaztatu; auziaren gainean, ik., esaterako, Goullet (1999: XI-XII) eta Bisanti (2005: 14).

12. Besteak beste, legea eta zergak ezartzeko edota txanponak egiteko eskubidea izatera heldu zen bertako abadesa. Bereziki Goettingek (1950; 1973-1974; 1981) aipatzen ditu Gandersheimeko abadiari buruzko datu gehiago; hark emandako informazioa zabaltzen eta berrikusten dute Goulletek (1999, XV-XVIII) eta Wailes & Brownek (2013b). Aipagarria da Liudolfok eta Odak sortutako elkarteko elizemakumeak Brunshauseneko abadian bizi izan zirela urte batzuetan, gaur egungo Bad Gandersheimeko erdigunean dagoen abadia eraiki bitartean. Terminologiari dagokionez, badirudi X. mendeko emakumeen abadia germanikoetan ez zegoela oraindik muga argirik beneditar monasterioen (*Kloster*) eta kapituluaren (*Stift*) artean (Goullet, 1999: XX); hortaz, frantsesez bezalatsu, euskaraz ere *abadia* hitzaren bidez itzuliko ditut, oro har, latinezko *coenobium*, *ecclesia* edota *monasterium*.

13. Jakina da zenbait lekaike bospasei urteren bueltan heldu zirela bertara (Martos & Moreno Soldevilla, 2005: XIV, 7. oh.), eta gazteago oraindik —hiru urte ingururekin— Gerberga II.a (Goullet, 1999: XVIII). Bestalde, pentsaezina da Rosvitak horren jakintza-maila altua eskuratuko zuenik

harremana izan zuen Rosvitak otondarrekin.

X. mendean, Europako kulturagune nagusietako bat izan zen otondar dinastiaren gordea, orduko aditu ezagun asko bildu baitziren otondarren ingurura, Oton I.aren anaia Brunok deituta¹⁴. Rosvitak gorte inperialeko zenbait izen aipatzen ditu bere lanetan —Oton I.az gain, baita Bruno bera ere (*Gesta*, 53)—, eta, hala, zenbaiten ustez, posible da Rosvita otondarren ahaide izatea, bai eta gortean hezkuntza jaso izana ere¹⁵. Alabaina, ez dago jakiterik zenbaterainoko harremana izan zuen Rosvitak gortekoekin, ezta harreman hori zuzenean ala beste norbaiten bidez izan zuen ere —Gerberga II.aren bidez, esaterako—. Edonola ere, badirudi Rosvitak nolabaiteko askatasuna izan zuela Gandersheimen, ez baitzen izan moja beneditar erregularra (*sanctimonialis regularis*), ezpada *kanonesa* (*sanctimonialis canonica* edo *canonissa*); lehenengok kastitate-, obediencia- eta pobretasun-botoak egiten zituzten, baina kanonesa direlakoek, berriz, ez zuten pobretasun-botorik egiten, eta, hortaz, norberaren ondasunak izateko eskubidea zeukaten, bai eta kanpoko jendearekin harremanak izateko aukera ere¹⁶. Horrenbestez, otondarren ahaide izan gabe ere, gorteko elite eta giro intelektualetik hurbil egoteko askatasuna izan bide zuen Rosvitak¹⁷.

abadiara gazte sartu izan ez balitz (Kronenberg, 1962: 57; Nagel, 1965: 40-41). Bada, ordea, beste usterik izan duenik ere: Magninen (1845: XXII) esanetan, adibidez, Rosvitak bere lanetan erakusten zuen munduaren eta grinaren ezagutzak nahitaez eskatzen zuen Rosvitak irrika horiek bere larruan bizi izana; Magninen arabera, beraz, Rosvita maitemindurik egon zen Gandersheimera heldu aurretik.

14. Besteak beste, Koloniako artzapezpiku izan zen Bruno. Otondarren gortean egon ziren, adibidez, Veronako apezpiku Raterio edota Cremonako artzapezpiku Liutprando (Goullet, 1999: XXIII-XXIV; Giovini, 2003: 5-33).

15. Dronkeren arabera (1984: 56), adibidez, litekeena da 919-926 urte bitartean Gandersheimeko abadesa izandako Rosvita I.aren ahaide izatea, eta, hortaz, «errege-etxeko urrutiko ahaidea izatea, gutxienez». Cf. Goullet (1999: XIII).

16. *Regula Sanctimonialium* deritzon testuan daude jasota kanonesa direlakoan gainean 816. urtean Akisgraneko Kontzilioan adostutako xedapenak (PL, 105, 935-976B zut.); hain zuzen, 23. atalean aipatzen dira *sanctimoniales canonice viventes* direlakoak ('kanonaren arabera bizi ziren elizemakumeak'). Erregela horrekin batera argitaratutako beste testu batean (*Ad formam institutionis canonicorum et sanctimonialium Auberti Miraei notae* [PL, 105, 975C-986B zut.]), 816an Ludoviko Pioren aginduz emandako kanonesen *formula* edo *regula* delakoaren berri ematen da (PL, 105, 977. zut. eta 984. zut.). Badirudi, beraz, erlijioari osoki emandako lekaimeak ez ezik, nolabaiteko askatasuna zuten elizemakumeak ere bizi izan zirela Gandersheimeko abadian, hala nola alargunak, ezkondu nahi ez zuten emakumeak edota —ezkondu bitartean— nolabaiteko hezkuntza jasotzen zutenak. Goulletek (1999: XVIII-XX) «emakume nobleen bizileku» gisa izendatzen du Gandersheimeko abadia; haren ustez, ezin dugu ukatu Rosvita debozio handiz bizi izan zenik, baina, era berean, ezin dugu ziurtzat jo Gandersheimeko emakume guztiak «véritablement religieuses» izan zirenik ere; gaiari buruz, ik., halaber, Nagel (1965: 47-48).

17. Zenbaiten ustez, litekeena da Rosvitak Brunoren edo gorteko beste norbaiten aginduz idatzi izana *Gesta Ottonis* —beharbada, aurreko lanetan erakutsitako gaitasuna aintzat hartuta (Pillolla, 2003: XIX, LXXIII)—, nahiz eta lan horren lehen hitzaurrean (*Praef. lib. III.1*, 3) Rosvitak berak dioen Gerberga II.aren aginduz idatzi zuela lana. Gandersheimeko abadiak orduko kulturaren eta ideien transmisioan izandako lekuari dagokionez, ik. Goullet (1999: XXVI-XXVII).